

Unai Rekondo Pérez

Pasaia Udaleko Idazkariak

ZIURTATZEN DUT:

2019ko urriaren 29ko Udalbatzarrean, besteak beste, honako ebazpenen berri eman zen:

7.- Kreditu aldaketan berri ematea.

7.1 Alkatearen 2019/1549 zenbakia duen ebazpena, 2019ko urriaren 9koa, Kreditu gehigarriei buruzkoa.

“ 2019KO AURREKONTUAREN ALDAKETA. KREDITU GEHIGARRIA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 12 zk. Espedientea –3. Kreditu Gehigarria aztertuta.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko dituzten sarreraren ziurtagiriak ikusita eta Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena kontuan hartuta, Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan jasotakoaren arabera, kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, kredituak aldatzeko 12zk. Espedientea,3. kreditu gehigarria partidakako xehetasun honekin:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 17.623.02.161.00 2019	URA EDANGARRIA TRATATZEKO SIST DONIBANEN	171.971,00	75.000,00	246.971,00
1 09.624.01.163.00 2019	IBILGAILUA KALE GARBIKETA	0,00	40.000,00	40.000,00
1 13.629.01.342.03 2019	TERRAZA EDUKI-ONTZIA ANTXOKO FRONTOIAN	0,00	32.000,00	32.000,00
	GUZTIRA	171.971,00	147.000,00	318.971,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 02.870.01.920.00 2019	DIR.GERAKINA GASTU OROKORRAK	147.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			147.000,00

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.”

7.2 Alkatearen 2019/1594 zenbakia duen ebazpena, 2019ko urriaren 17koa, Kreditu transferentziei buruzkoa.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 13 zk. Espedientea –5. Kreditu transferentzia.

“ 2019KO AURREKONTUAREN ALDAKETA. KREDITU TRANSFERENTZIA

Udal honen aurtengo aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egitea beharrezkotzat jo denez gero, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan jasotakoaren arabera, hau ebatzi dut:

Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea aipatutako xedapenetan jasotako erregulazioari jarraiki, eta kontuhartzailearen txostenaren arabera.

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 09.227.99.160.00 2019	KEEL SANEAMENDU-SAREEN MANTENTZE LANAK	25.000,00	5.000,00	20.000,00
1 09.226.99.338.00 2019	JAIETAKO GASTU OROKORRAK (ZERBITZUAK)	56.000,00	4.500,00	51.500,00

1 04.227.99.231.08 2019	NAGUSIEN ZENTRUETAKO MANTENUA	20.000,00	12.000,00	8.000,00
1 04.480.01.231.07 2019	TASAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZAK	7.000,00	3.079,29	3.920,71
1 04.226.99.231.08 2019	JARDUERAK BIZIPOZ PROIEKTUA	8.500,00	2.980,00	5.520,00
1 04.227.11.326.02 2019	GIZARTERATZEA	64.481,00	5.000,00	59.481,00
1 06.226.06.231.10 2019	GAZTERIAREN JARDUERAK	43.270,00	3.000,00	40.270,00
	GUZTIRA	224.251,00	35.559,29	188.691,71

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 09.210.01.161.00 2019	KMK UR HORNIDURA	15.000,00	5.000,00	20.000,00
1 09.212.01.326.10 2019	KMK MAKINERIA ETA INSTALAZIOAK	12.000,00	4.500,00	16.500,00
1 04.480.02.231.02 2019	LARRIALDI SOZIALEKO GASTUAK	585.000,00	23.059,29	608.059,29
1 09.625.01.231.10 2019	ALTZARIAK HAUR- GAZTE UDAL LOKALAK	15.300,00	600,00	15.900,00
1 09.212.01.231.10 2019	KMK MAKINERIA ETA INSTALAZIOAK	25.000,00	2.400,00	27.400,00
	GUZTIRA	652.300,00	35.559,29	687.859,29

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira"

Eta honela jasoa gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, eta alkate andrearen oniritzia jaso ondoren, sinatzen dut Pasaian 2019ko azaroaren 28an.